

DEKRETUA**1.208/2025****EUSKARAZKO IRAKASKUNTZAREN ALDEKO EKITALDIAK ANTOLATZEKO LAGUNTZAK**

Euskadiko Autonomia Erkidegotik kanpo euskararen alde egiten diren ekitaldien antolatzaileek eta Autonomia Erkidegoan Euskal Eskola Publikoaren alde egiten den jaiaren antolatzaileak dirulaguntza eskaera helarazi diote Erandioko Udalari.

Dirulaguntza eskaera horiei erantzuteko, euskara zerbitzuak egindako hitzarmen-proposamenak udaleko behin-behineko idazkariaren oniritzi izan du *sinatzekoak diren hitzarmen horien klausulen barruan ezarritako xedeak, hitzarmenak egiteko justifikazio nahiko emanda, Udal eskumenen barruan baitaude, honako adierazpen honen pean kokatuta: "interes publikoko jarduerak sustatzea eta laguntzea, herritargoaren interesak eta beharrak betetzeari begira.*

AURREKARIAK

LEHENA.- 2025eko ekitaldirako aurrekontu orokorra jendaurrean jartzeko arauzko epea amaiturik eta inolako erreklamaziorik edo oharpenik aurkeztu ez denez, Erandioko Udalbatza Osoak behin betiko onarpena eman dio 2025eko martxoaren 29an izandako Osoko Bilkuran (2025eko apirilaren 1eko BAO, 63. zk.) onartutako aurrekontuari.

BIGARRENA.- Erandioko Udaleko Herritarren lan-arloari dagozkion dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza orokorra behin betiko onartu zen 2024ko martxoaren 27an izandako ohiko batzaraldian, eta hala argitaratu zen 52 zk.dun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

HIRUGARRENA.- 2024-2026 aldirako Erandioko Udaleko Herritarren lan-arloko dirulaguntzen Plan Estrategikoa; Alkatearen 0633/2024 Dekretuaren bidez onartua eta 2024ko apirilaren 15eko 72. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

LAUGARRENA.- EHIGE Konfederazioak Euskal Eskola Publikoaren 32. Jaia antolatzeko laguntza eskaera aurkeztu du Erandioko Udalean, 2025eko apirilaren 29an (erregistro telematikoaren zenbakia: 902-2025-3801).

BOSGARRENA.- Udaleko Ogasun arloko izapidean aipatu Plan Estrategikoaren bidez onartutako laguntza zuzenak emateko zenbatekoak bideratzeko udaleko euskara zerbitzuaren aurrekontu-partidetan kreditu nahikoa dagoela adierazten da. (RC 220250003366 - Esp. zk: 10EUSK-2025/0010).

OINARRI JURIDIKOAK

LEHENA.- Abenduaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzen Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, 38/2003 Legearen gaineko Araudia onartzen duena.

BIGARRENA.- Honako lege-xedapen hauetan ezarritakoa: 11/99 Legea, apirilaren 21ekoa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legea aldarazten duena, 781/86 Errege Dekretua, apirilaren 18koa eta 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (Artikuluak: 114.1, 123 eta 124).

HIRUGARRENA.- Honako lege-xedapen honetan ezarritakoa: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea (21.s artikulua).

HONAKO HAU XEDATZEN DUT

LEHENA.- Erandioko Udalaren eta EHIGE Konfederazioaren arteko hitzarmena onartzea (ikusi eranskinak).

BIGARRENA.- Honako honetan aipatzen diren erakundeei herri eta giza intereseko arrazoiengatikotik dirulaguntza gisa ondorengo zenbatekoak ematea:

ELKARTEAREN IZENA	I.F.K.	Kontu zk.	Kopurua
EHIGE (Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarte) Konfederazioa	V95246104	BASKES2BXXX ES63 2095 03 6881 9104862111	500 €

HIRUGARRENA.- Udalaren eta elkartearen artean sinatutako Lankidetzeta-Hitzarmenean adostutakoa beteko dute alde biek, eta hartan azalduko jarduerak eta ekintzak gauzatzeko erabiliko da emandako dirulaguntza hau, ez beste ezertarako. Hala ere, aldaketarik eginez gero, Udalari aldaketen berri jakinarazi beharko zaio, aldez aurretik.

LAUGARRENA.- Ebazpen hau ondokoei jakinaraztea bidezko diren ondorioak izan ditzan: Ogasun sailari eta hizkuntza normalkuntzari. Era berean, Idazkaritza sailari ere jakinaraziko zaio, horren berri kontu hartu eta alkateak zein korporazioko kide eskuordetuek emandako Ebazpenen Liburuan jasota gera dadin.

Alkateak hala dekretatu eta izenpetu du.

Erandio, 2025eko maiatzaren 8a

Alkatea
Aitziber Oliban Gutiérrez

Kontu hartu dut
Martxoaren 16ko 128/2018 Errege
Dekretuaren 3.2 e) artikulua betez
Behin-behineko idazkaria
Javier Basante Otegi